

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2012ko AZAROAREN 8an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko azaroaren 8an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa
Jon Tejeria Otermin
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea


Bere ezin etorria azaltzen dute: Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - 2012ko urriaren 4an egindako ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. 2013 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskeintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala bada.**
- 4. 2012 urteko jaietako gastuen kitapenaren berri ematea, hala bada.**
- 5. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2012ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada.**
- 6. Larrunbide baserri inguruan, 01 poligonoko 007 partzelan dagoen pinudia ateratzeko, herri bidearen erabilpen baimena, P.O.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2012 urteko urriaren 4ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

14/2012 Alkatetza Ebazpena, urriaren 10ekoa, J.M.A. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

15/2012 Alkatetza Ebazpena, urriaren 16koa, I.S.K. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo Udalean jarrita duen fidantza bueltatzea, ebazten duena.

16/2012 Alkatetza Ebazpena, urriaren 23koa, A.A.Z. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo Kultur etxeko balioanitzea gela erabiltzeko baimena ematea eskaturiko egunetan eta ordutegian, ebazten duena.

17/2012 Alkatetza Ebazpena, urriaren 30ekoa, 2012 ko 3. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.


HIRUGARREN PUNTUA

2013 URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKEINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOAREN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2013. urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeke unea dela.

Ikusirik 2012 urteko urriaren 8an Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimendua, batetik, eta bestetik, 2012ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2013 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

1.1.Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Ordenantzaren eranskina mantentzea erabaki da.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,30.

Gainerako hiri ondasun higieziinei aplikagarri zaien karga tasa: %0,25.

Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,60.

Dauden hobarien artean “Eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak” hobaria, % 25a izango da.

“Famili ugariari” dagokion hobariari buruz 3 ume edo gehiago duten familiei % 50eko hobaria aplikatuko zaiela onesten da.

1.2.Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordain-arazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 2,2 finkatzen da. Mantentzea proposatzen da.

1.3.Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.


Zerga honen koefizientea % 1,67-ra igotzea proposatzen da.

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. Euroak

A)Turismoak:

9 zaldi fiskal bitartekoak % 1,67.....	30,71
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak % 1,67.....	61,42
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak % 1,67.....	102,37
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak % 1,67.....	143,32
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak % 1,67.....	184,27
20 zaldi fiskaletik gorakoak % 1,67.....	225,22

B)Autobusak:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

21 plaza bitartekoak % 1,67.....	139,11
21 - 50 plaza bitartekoak % 1,67.....	198,13
50 plazatik gorakoak % 1,67.....	247,66

C) Kamioiak:

1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria % 1,67.....	70,61
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. % 1,67.....	139,11
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e. % 1,67.....	198,13
9.999 kg-tik gorako k.e. % 1,67.....	247,66

D) Traktoreak:

16 zaldi fiskal bitartekoak % 1,67.....	29,51
16 - 25 zaldi f. bitartekoak % 1,67.....	46,37
25 zaldi fiskaletik gorakoak % 1,67.....	139,11

E) Trakzio mekanikoko ibilgai-luen atoi eta erdi-atoiak:

750-1000 kg. bitarteko karga erabil-garria % 1,67.....	29,51
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. % 1,67.....	46,37
2.999 kg.tik gorako karga e. % 1,67.....	139,11

F) Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotoreak % 1,67.....	7,53
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak % 1,67.....	7,53
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek. % 1,67.....	12,89
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek % 1,67.....	25,80
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek. % 1,67.....	51,60
Motozikletak 1.000 cctik gora % 1,67.....	103,19

1.4. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.


Mantendu egiten dira kuotak.

Baserrien berrikuntza	% 2,5
Besteak:	
a) 60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak:	% 4,50
b) 60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua:	% 5,00

HOBARIAK:

- % 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko, baldintza hauek beteko dira:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.
- Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.
- Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.
- Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obraren zatian.

1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Karga tasa: % 6,29-an mantentzea proposatzen da.

BIGARRENA.- Tasak arautzen dituzten ordenantzei dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

2.1.1. Ur horniketa.

Tasa honetan ondorengo proposamenak egiten dira.

1. Ur horniketa *Euroak*

1.1. Ur Kontsumoa

1.1.1. Etxez-etxeko ur hornidura


30m³. bitartekoa, hiru hilabeteetan 15,00 € Mantendu

31m³tik goragokoa, hiru hilabeteetan 0,63 €/m³ bakoitza tik
0,64€/m³ bakoitza igotzea proposatzen da.

1.2. Azpiegitura kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko 10,00€-tan mantentzea
proposatzen da.

1.3. Kontadoreen alokairuen kanona



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Guztientzat, hiruhilabeteko.....8,00 €Mantendu

1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko 120,00 €Mantendu

1.5.- Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. eranskina.

2.1.2.- *Zabor bilketa zerbitzua* *Euroak*

Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko.....46,00 euro mantentzea.

Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko.....62,00 euro mantentzea.

Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. Eranskina.

2.1.3. *Dokumentu administratiboen igorpena:*

2.1.3.1. Lizentziak, kontzesioak eta hirigintzako baimenak mantentzea proposatzen da:

Mantendu egiten dira.

- Segregazio baimenak..... 80,00 euro
- Hirigintza kontsultak..... 80,00 euro.
- Lehen erabilera baimena 105 euro/etxeko.
- Edozein P.E.R.I., Zati Plana, urbanizazio proiektu, xehetasun ikerketa.....1.600,00 euro

2.1.3.2. Iharduera baimenak Euroak

A.1. IGOKA-ri lotuak.....110,00 euro

A.2. IGOKA-ri ez lotuak.....80,00 euro


2.2. **Herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkion tasen Ordenantza fiskala**

Tarifak mantentzea proposatzen da.

2.2.1. **Hileta zerbitzuak:**

Mantentzea proposatzen da.

- Hezurtegiaren emakida:
 - Behin-betiko emakida, plaka barne.....195,00€
- Nitxoen emakida:
 - 15 urteko epean, plaka, apala,.....265,00€
 - 5 urte bitarteko luzapenagatik.....125,00€
- Lurperatze tasa: 48,00 euro.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2.2.2.- Kirol instalazioen erabilera: *3 euro orduko.*

2.2.3.- Bestelako prestazioak:

- *Mapen salmenta: Handia.....3 euro unitatea.*
Txikia.....1 euro unitatea.

HIRUGARRENA.- 2013 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

1.- HOBARI ESKAERA: 2013 urteko urtarrilaren 2etik 31 arte.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:
2013 urteko apirilaren 1etik ekainaren 3 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2013 urteko maiatzaren 1etik uztailaren 1 arte.
2013 urteko abuztuaren 1etik urriaren 1 arte.
2013 urteko azaroaren 4tik abenduaren 30
arte.
2014 urteko otsailaren 3etik martxoaren 31 arte.

LAUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradozikunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betiko onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

LAUGARREN PUNTUA


2012 URTEKO JAIETAKO GASTUEN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik San Juan, San Esteban eta San Bartolome jaiak pasa direla, Alkateak jai hauetan egon diren gastuen berri ematen du. Jai guzti hauen kitapena ondorengoa izan delarik:

ORDAINKETAK

Kontzeptu ezberdinak

Argi engantxeak	426,55
Kartelak	360,00
Herri Ostatua	74,30
Eszenarioa Irura	150,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Eszenarioa Irura garraioa	90,00
Eszenarioa garraioa	152,10
Elkarte gastu ezberdinak	30,30
Jai batzorde afaria	340,00
Paella bazkaria (bakoitzak ordaindua)	91,25
Platanoak	10,00
Basoak	265,32
Maskuriak	15,65

San Joan Afaria


-Haragitegia	262,00
-Postrea eta ogia	170,00
-Tomatea	20,00
-Kroketak	16,50
-Atuna, letxuak,...	55,00
-Berdurak	19,50
-Helatuak	23,00
-Elkartea	340,00

Kultura taldeak

-DJ Txoko	400,00
-Kupela	1100,00
-Ansorregi eta Larrañaga	500,00
-Solano bokatak	125,10
-Lidia eta Xabier	300,00
-Bertsolariak	880,00
-Pelotariak	650,00
-Margolaria	400,00
-Tableroak	44,40
-Pintura txuria	12,06

Haur ekintzak

-Puzgarriak	1128,60
-Janaria	51,23
-Janaria haragitegia	110,07
-Ogiak	43,75
-Helatuak	56,70
-Elkarte gastuak	39,80
-Txupatxus eta globoak	30,00
-Guraso bazkaria (bakoitzak ordaindua)	99,62



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Sagardo probaketa

-Ogia	48,00
-Sagardoa	78,00
-Txorizua	119,29
-Basoak	113,28

Txirrindulari igoera

- DYA	64,16
-Pintxoak	24,00
-Opariak	76,70

Herri kirolak, idi-ahari

-Egurak eta aizkorak	133,00
-Idiak-ahariak	400,00

Opariak

-Trofeoak	308,00
-Txanpaña	54,00
-Platano joku afaria	32,00

Hamaiketakoa

-Ogia San Esteban	52,50
-Berdurak San Esteban	8,75
-Haragia San Esteban	370,59
-Elkartea San Esteban	322,81
-Ogia San Bartolome	40,00
-Berdurak San Bartolome	6,15
-Haragia San Bartolome	277,57
-Elkartea San Bartolome	262,43


Txozna

-Elkarteko edaria	20,82
-Txozna	400,00
-Edaria	731,47

Plazako afaria

-Piparrak	10,00
-Urdaiazpikoa	19,12
-Ostatua	36,90
-Arraia	221,00
-Elkartea	180,95
-Ogia eta postrea	120,00

Salmentak



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Urdaiazpikoa eta gazta	137,43
-Frontoiko boletoak	55,00
-Karretila boletoak	75,00
-Karretila	46,00
-Karretila produktuak	600,00

DIRU SARRERAK:

-Udalaren ekarpena	7000,00 euro
-Propaganda (laguntzaileak)	1180,00 euro
-San Joan afaria, 58H,12G,28U	1130,00 euro
-Kainabera jokua	142,85 euro
-Frontoiko boletuak	625,00 euro
-Sagardo probaketa	457,00 euro
-Errifak	983,02 euro
-Mus Txapelketa	220,00 euro
-Txozna	1847,00 euro
-Plazako afaria	900,00 euro
-Guraso bazkaria	100,00 euro
-Paella bazkaria	100,00 euro

GUZTIRA: 14.684,87 euro

ORDAINKETAK GUZTIRA: 14.327,68 euro

BALANTZEA: +357,19 euro

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2012. Urtean San Joan, San Esteban eta San Bartolome jaietan egindako gastuen likidazioa onestu, **14.327,68 euro**tako gastua izan delarik.

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2012KO 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko urriaren 22an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2012 ekitaldiko 3 eta 4. Hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 13.000,00 eurokoa dela adierazten den.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2012 ekitaldiko 3. eta 4. Hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 13.000,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA

LARRUNBIDE BASERRI INGURUAN, 01 POLIGONOKO 007 PARTZELAN DAGOEN PINUDIA ATERATZEKO, HERRI BIDEAREN ERABILPEN BAIMENA, P.O.

Ikusirik P.O. andreak eginiko eskaera, non Larrunbide baserri inguruan, 01 poligonoko 007 partzelan dagoen pinudia ateratzeko herri bidea erabiltzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2010eko uztailaren 29an egindako Udalbatzak harturiko erabakia, non Udal jabetzako landa bide eta pisten erabilera berezia erregulatzen duen araudia onartu zela, honen arabera, pinuak ateratzeko baimena ematearekin batera, baimena eskatzaileei, herribideetan sor ditzazketen kalteez erantzutearren berme bat jartzea eskatzea onestu zela.

Ikusirik pinudia ateratzeko oraindik ez duela Gipuzkoako Foru Aldundiko baimena.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: P.O. andreaki Larraulgo 01 poligonoko 007 partzelan duen pinudia ateratzeko, herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ondorengoari baldintzaturik:

-Pinudia ateratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko baimena aurkeztu beharko du Udaletxe honetan.

-Pinudia atera aurretik, Larraulgo Udaletxeari jakinaraziko zaio, herri bidea ze egoeratan dagoen ikusteko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


- Betiere lan hauek egiten hasi aurretik, Larraulgo Udaletxean dagokion fidantza jarri beharko du, herri bidean gerta daitezken kalteei aurre egiteko.

BIGARRENA: P.O. andreari erabaki honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

MEGA	101,16
AKETEGI	64,00
HOSFRINOR	825,51
IZFE	1.869,03
MANPEL	144,78
KIROLZER	149,65
GIPUZKOAKO URAK	4.238,62
AITZOL	81,20
GARAJE EGIN	49,37
EITD	177,87
IZFE	393,88
EINBER	108,90
LASURTEGUI	130,85
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	54,11
ULAHI	555,39
KIROLZER	149,65
EBA ERKIZIA	709,57
OSTARBI	5.146,25
FERRETERIA BARBE	59,17
UROLA	2,37
MANPEL	87,27
EITD	177,87
GASNATURAL FENOSA	46,47
GASNATURAL FENOSA	41,44
GASNATURAL FENOSA	111,42
GASNATURAL FENOSA	423,35
GASNATURAL FENOSA	367,83
GASNATURAL FENOSA	265,83
GASNATURAL FENOSA	127,39
GASNATURAL FENOSA	238,93
GASNATURAL FENOSA	147,60
MOVISTAR	18,44
MOVISTAR	97,68



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOVISTAR	92,65
MOVISTAR	20,99
MOVISTAR	100,29
EUSKALTEL	64,72
EUSKALTEL	118,06

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,
ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **17.559,56** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez:

8.1. ESTADUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK, DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 2.ZK. EPAITEGIAN TARTEKATURIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei berri ematen die Estatuko Administrazio Orokorrak, Estatuko abokatuaren bitartez, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2.Zk. epaitegian administrazioarekiko Auzi-errekurtso bat tartekatu duela, Alkizako Udalak, Alkizako Udaletxeko fatxadan ez duelako Espainiako bandera jarrita, 39/1981 Legeak dioena bete gabe.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Espainiako bandera erosi eta jartzeari onespina ematea, 39/1981 Legean araututa dagoena beteaz. Ahal den azkarrena egingo delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Estatuko Administrazio Orokorrari, Estatuko Abokatuari berri ematea, eskatuaz tartekaturiko auzi-errekurtsoa bertan behera gelditzeko.

8.2. LARRAULGO MURGIL GURASO ELKARTEARI, ESKOLAN EGIN DIREN EGOKITZE OBRAK ORDAINTZEKO, LAGUNTZA EKONOMIKO



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ESKAERA LUZATZEA

Ikusirik Larraulgo eskolan 2012/2013 ikasturtea eman ahal izateko hainbat egokitze lan burutu direla, hauen fakturak iritsi direlarik.

Ikusirik 2012 urtean Larraulen egindako Eskola txikien festan, Larraulgo Murgil Guraso Elkartek, diru soberakin bat lortu zuela, Udaletxe honi jakinaraziz, diru hori eskolan gauzatzen ziren obrak finantzatzeko erabiliko zutela.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Murgil Guraso Elkarteari, eskolan burutu diren egokitze lanak bukatu ondoren, hauek ordaintzen laguntzeko, egoki deritzon laguntza ekonomikoa eman dezan eskaera luzatzea. Lanen kostua guztira 7.129,90euro izan delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Larraulgo Murgil Guraso Elkarteari ematea.


8.3.LARRAULGO BEOBIDE AZPI BASERRIAN DAGOEN TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENA BAT JARTZEKO BAIMENA ETA JARDUERA BAIMENA ESKAERA, VODAFONE

Ikusirik, VODAFONE-K eginiko eskaera, non Larraulgo Beobide Azpi baserrian telefonia mugikorreko antena bat jartzeko obra baimena eta jarduera baimena eskaera egin zuela.

Ikusirik, 2012ko uztailaren 5ean egindako Udalbatzarrean erabaki zela VODAFONE-ri jakinaraztea eskaturiko jarduera baimena martxoak 9ko 165/1999 Dekretuaren bidez tramitatuko zela, zeina, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duen.

Ikusirik, VODAFONE-k Larraulgo Beobide Azpi baserrian telefonia mugikorreko antena bat jartzeko obra baimena legeztatze aurrekontu bat aurkeztu zuela.

Ikusirik 2012ko uztailaren bostean egindako Udalbatzarrean onartu zela, VODAFONE-k Larraulgo Beobide Azpi baserrian telefonia mugikorreko antena bat jartzeko aurkezturiko jarduera baimenari hasiera ematea. Horretarako jarduera kokatua dagoen inguruko bizilagunei jakinarazi zaie hamar eguneko epean jarduera horren kontra erreklamazioak aurkezteko epea irekitzen dela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik aipaturiko epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu.

Ondoren Idazkari andreak batzarkideei jakinarazten die, Larraulgo Beobide Azpi baserria monumentu kategoriako kultura ondasun deklaratu zuela, Euskal kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: VODAFONE-k Larraulgo Beobide Azpi baserrian telefonia mugikorreko antena bat jartzeko aurkezturiko jardura baimena eskaera onestea.

BIGARRENA: VODAFONE-k Larraulgo Beobide Azpi baserrian telefonia mugikorreko jarritako antena legezatzeko obra baimena eskaera onestea.

HIRUGARRENA: .- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: VODAFONE-ri erabaki hauen berri ematea

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**


Ondorengo adierazpen instituzionala aurkezten da:

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Azaroaren 25a dela-eta, hau da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak “Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna” aitortutako eguna dela-eta, **Larraulgo udalak** indarkeria matxistaren aurkako gaitzespena agertu du. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai eta sexismo mota oro ere, arinenak eta normalizatuenak barne, esaterako: sexuaren araberako rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztapena; edota pertsonetikiko diskriminazioa euren sexu-aukeraren edo genero identitatearen ondorioz.

Belaunaldi gazteagoen artean emakume nahiz gizonen arteko desberdintasunak eta emakumeenganako indarkeria gailenduta daudelako mitoa baino harago, errealitateak erakusten digu gazteen artean dagoen indarkeria matxista, baita adinez txikikoen artekoa ere, benetan kezagarria dela.

Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonetzkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu gabe, ez



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

eta gizonaen eta emakumeen arteko harreman afektibo eta sexualak eraikitze modua aldatu gabe ere. Horregatik, tokiko gobernuok konpromiso aktiboa izan behar dugu udalerriko gazteekin lan egin eta indarkeria matxista prebenitzeko, ahalegina eginez eta beharrezkoak diren baliabideak eskainiz. Hori horrela, errespetuan, askatasunean, autonomian eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzen lagunduko diegu gazteei.

Prebentzioko prozesu honek erreferentziazko eredu berriak sortzea ahalbidetzen du, hain zuzen ere, mutilek eta gizonen pribilegiozko jarrerarik eduki ez dezaten nesken eta emakumeen aldean, izan ere, indarkeria matxistaren jatorria emakumeen menpekotasuna eta diskriminazioa betikotzen duen botere-harremanean dago. Beldur Barik programan Euskadiko udalek hartzen dute parte, eta helburua da sexismotik aldentzen diren neska-mutikoen jarrera positibo eta egunerokoak antzeman eta ikusaraztea, izan ere, jarrera horiek rol tradizionalekin hautsi eta gizarte berdintsuagoa eraikitzea dute xede.

Erakundeetatik eta, erakunde hurbilenetik, udaletik, indarkeria matxistaren kontrako ardua soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu, eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rola eta eguneroko jarrerak berrikusi beharko ditugu. Norberak erantzukizun horiek bere gain hartuz gero, aldaketarako konpromisoa lortuko da.

Larraulgo Udalak, aho batez, ondorengo ERABAKITZEN DU:

- Beldur Barik programaren edukiekin bat dator, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.
- Herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonaen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexistak gaitzesteko ere.
- Gonbit egiten die herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.00 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA